


# «Bandas armadas»

**J**OAN den astean beren erpina jo dute, zinez, indar zapaltzaileek. Irratia edo telebista piztu, kaseta erosi, eta inoiz baino errepikakorrago topatu dugu bestetango leloa: «*las bandas armadas*»... «*el santuario terrorista*»...

Hori bakarrik ez: sekulako harrapaketak Iparraldean, errefuxiatuen artean («*entre los refugiados españoles del Sur de Francia*», jakina); eta, kasu eman berdintzari: «*hortaz*», sekulako egurra ETari. Kolpe latza errefuxiatuei; «*hortaz*», kolpe latza ETari. ETA kanpoan baitago, Francoren garaietan bezala; eta kanpotik baitatuz barruan saltsa nahastera.

Jaun-da-jabe ibili dira batera eta bestera jendarmeak, guardizibilak, sekretak, garde-mobilak, eta gainerako indar okupatzaileak; eskuz esku ikusi ditugu lanean, Eskiulatik eta Lanestosaraino, Bidaxunetik eta Ablitaseraino, «*ordenua*» jartzen, eta «*banda puta*» hori hemendik edo handik betirako erauzteko eta funditzeko delibero irmoan.

Gu, abertzaleok, geure herria bere zabalera guztian horren basaki zafratuta ikusirik, ez gara batere poztu. Baina, noski: gu ez gara «*demokratak*». «*Demokraten*» artean ahobatez txalotu da balentria harrigarri hau. Eta antxixkietan eta bateratsu jakinerazi dute beren poza nagusiek eta «*harki*»ek; alegia, Barrionuevok eta Pandraudek batetik; eta Bandresiek eta Ardanzak bestetik. Eta komisarietan, ezkertokietan eta batzokietan batera, «*banda fazista*» horiek oraingoan izorratuta omen daudela-ta, «*vino español*» atera da ausarki eta dementzat.



TXILLARDEGI

**J**ADANIK arrotzen okupazioa eguneroko erreparatuko ez bagenu bezala, Eustakio Mendizabalen hitz mingotsak dastarazi dizkigute: «*Geure etxean arrotz*». Ez dute diximulatzen. Zertarako? «*C'est nous qui commandons ici*», entzun da Iparraldean; eta, oihartzun gisa, itzulpen zehatza Hegoaldean: «*Aquí mandamos nosotros*». Instituzio autonomikoak, jakina, isilik egon dira. Gure kontra botatzen dituzten madarikazioei esker dakigu nolako ahotsa duten... Bestela jai genuke!

Zanpaketa gora joan da, hitz batez. Eta oraindik zigorketaz menderatu nahi den ezker abertzaleak hartu du jipioa. Bufoiek, artean, «*quisling*»ek, sekulako txaloak biltzen dituzte Madrilen. Zergatik ote? Nor aldatu da: Madrilekoak, ala txaketa aldatu dutenak?

Zanpaketa munstro honek, ordea, beste zanpaketa guztiak ahantz erazten ditu. Eta ez dugu hamua irentsi behar.

Ikastola, Ipar eta Hegoaldean, inoiz baino kinka larriagotan dago. Aginte «*autonoma*» PSOEn eskuetan erori da, bai Nafarroan eta bai Vascongode-tan. Euskal Herriak onartu ez duen legetasunean mogitzen dira «*gure*» instituzioak; gobernuaren kontra manifesta-

tzeko eskubidea bera agertzen da ukaturik; eta zerga ekonomikoaren «*cupo*» famatua, Madrilek markatzen du bere gisara, ahalkerik batere gabe, eta «*burukide*» zuhurak berak lotsatzeko moduan...

Baina gure arteko **ustelek** txalo jotzen dute; edo-ta, onenean, eskuak garbitzen.

**H**AU ikusita, inoiz baino «*okerrago*» gaudela entzuten da hortik. Baina nik ez dut inolaz ere hori uste.

Francoren garaian itxura itsusia zeukan Madrileko gobernuak (badakizue: Hitler eta Mussoliniren adiskide ohia); eta kanpoko jendeak, Espainian eta Frantzia bereziki, **Francoren alde agertu nahi ez zuelako**, euskaldunen alde ote zegoen somatu uste zuten informazio txarra zutenek.

Orduan, ordea, bai Espainian eta bai Frantzia, **ia denak** zeuden gure kontra. **Gaur bezalaxe**. Edo Armeniari buruz bezain uzkur. «*Jendea*», orduan eta orain, futitu egiten da herri txikiek eta justiziaz. Europako «*jendeaz*» ari gara; alegia, bere irizpidea telebistaren arauera, eta agintean dauden indar politiko eta ekonomikoen arauera, erazten duenaz. Horrek ez zuen orduan gure nazio-arazoa ulertzen; eta orain ere ez. European, edo Frantzia eta Espainian, gauzak «*okerrago*» direla pentsatzea ez da egia.

**G**AUR, ordea, abertzaletasunak inoiz baino indar handiagoa du; eta Madrilek (eta Parisek ere horrela jokatzeokotan) prolema latza du Euskal Herriari. Hauze da zanpaketaren karkoa. Gora goazela, alegia. Horregatik mamitu da «*frente franco-español*» hori, Euskal Herria zapaltzeko. Zergatik ez da eratzen karlisten kontrako frenterik?

Gu ez gara espainolak eta frantsesak; eta ez dugu izan nahi. Independentzia nahi dugu, burujabetasuna. Guri buruz, autodeterminatzeko eskubide sakratua errespetatzea eskatzen dugu. Nor da demokrata hemen? Autodeterminazio-eskubidea aplikatu nahi duena, ala autodeterminazio hori ukatzen diguna?

«*Bandak*» eta «*deportazioak*» ez. Hemen **autodeterminazioa** behar da; eta honetara eramango duen **negoziazioa** ahalik eta azkarrenik hastea.